# *BAZKIDE GARRANTZITSUAK*

Gure enpresak izan dezakeen aliantza bat ZWIFT txirrindularitza simulatzailea izan daiteke. Arrabolari inplementatu diezaiokegun sistema baten bitartez, telebista batez baliatuz simulazio birtual bat egin dezakegu ZWIFT enpresaren potentzia neurgailua baliatuz. Simulatzaileak, arrabolan egiten dugun indarraren datuak erabiliz, ibilbide baten simulazio bat egiten du telebista edo monitore batean, ondoren ZWIFT enpresaren sistemak, internet bitartez beste ZWIFT erabiltzaileen datuak uztartzen ditu eta lasterketa moduko bat egiten du aurkaritza edo entrenatzeko amu bat sortuz.

Beste bazkide garrantzitsu bat hornitzailea litzateke, arrabolak egiteko lehengaiak garaiz iristeko eta behar dugun materialak ahalik eta kalitate onena izan dezan, konfiantzazko hornitzaile bat behar dugu. Banatzaile enpresa batekin hitzarmen bat beharko dugu gure produktua amaitzean bezeroei zabaltzeko.

ZWIFT erabiltzaile asko dago txirrindularitza munduan eta ZWIFT enpresaren web orrialdean aurki dezakegun dendan, beste arrabola enpresa batzuen produktuak aurki ditzakegu, beraz, aliantza posible hau gauzatuko balitz bezero gehiago lortzeko aukera bat izan daiteke ZWIFT enpresaren web orrialdean agertzea.

ZWIFT enpresaren web orria:
[https://zwift.com/](https://zwift.com/)
ZWIFT enpresaren web orrian aurki ditzakegun arrabola ezberdinak:

